

# AULKI DANTZA

**Materiala:** aulkiak (haur kopurua baino aulki bat gutxiago) eta musika.

**Jokatzeko era:**

Aulkiekin borobil bat osatuko da. Musika jarri orduko, partaideak aulkien kanpo aldetik biraka hasiko dira. Musika isiltzen denean aulki banatan jesartzen saiatuko dira. Zutik geratzen dena, kanpora. Aulki bat kendu eta errepikatu, bakarra geratu arte. Azkenak irabaziko du.

**Aldaera:**

Aulkien ordeaz umeak ipin daitezke, esku bat gerrian dutela. Besteek, kanpotik biraka, besoari heldu behar diote.

